

hezkuntzako

laboralak

Hezkuntza Langileen Euskara Agiria (HLEA)

Gure balorazioa

Hezkuntza Berezia martxan jarri zenetik, gauza asko aldatu dira langileen lan balditzetan, lan-kategoria batzuk desagertu dira, beste kategorია berri sortu edo indartu egin dira... Lanak eskatzen zituen beharrei aurre egin ahal izateko eta lanpustuei ezinbestekoa den duintasuna emateko, bai titulazioak baita ere funtzioak egokitu ditugu. Prozesu guzti honetan argi izanda Hezkuntza Berezia Hezkuntzarekin lotuta egon behar dela ezinbestez eta STEE-EILASen Eskola Publikoaren defentsa eta kalitatea dugula helburutzat.

Hizkuntzaren aldetik egokitzapena behar beharrezkoa izan da, baina honetan, bestean ez bezala, oztopoak ez dira Administrazioaren partetik etorri. Borrokatu behar izan dugu sindikatuen artean, eta gure ustez, euskararen perfilaren kontra dauden sindikatu hauen helburua ez da inolaz ere sindikala izan, politikoa baizik. Bestela ezin da ulertu nola lan egin daiteke langileen alde Hezkuntzatik aldentzen gaituen neurriak hartuz.

Hizkuntza eskakizuna behar-beharrezkoa da sektorea behar bezala arautzeko. Gaur egun, hizkuntza eskakizun berri bat daukagu, langileon profesionaltasunaz Administrazioa konbentzitu baita sektoreari dagokion lekua Hezkuntza Saila dela★

Dekretua

A Pasa den apirilaren 14an EHAAn argitaratu zen hezkuntza bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntza eskakizunak sortu eta arautzen dituen dekretua.

Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA) ize-neko hizkuntza eskakizuna da Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleei aplikatuko zaien hizkuntza eskakizuna.

Ikasleak euskaraz arduratzea eskatzen duten lanpostuek indarrean izango dute HLEA. Aldiz, gaztelaniaz lan egitea eskatzen duten lanpostuak HE1ekoak izango dira.

Dekretu horretan ez da aipatzen hizkuntza eskakizun hauen derrigortasun eguna. Dena den, HE1 egiaztatzeko salbuetsita egongo dira:

- ✓ 45 urtetik gorakoak
- ✓ Hizkuntzarik ikasteko gai ez direnak.
- ✓ Urritasun fisikoa edo psikikoa dela medio, euskaraz ezin ikasi dutenak.

HLEA duten lanpostuetan dihardutenak inola ere ezingo dira hizkuntza eskakizuna betetzetik salbuetsi.

Beste alde batetik, HBLEM ziurtagiria HLEAekin homologatzea arautu da, bietan jasotako hizkuntza gaitasunak baliokideak baitira.
n equiparables★

OHARRA

Oharra: Froga berezi bat prestatzen ari da HLEA edo homologatuta dauden beste hizkuntza eskakizunak ez dituztenek hori ateratzeko aukera izan dezaten. Momentuz ez dakigu noiz izango den, baina interesatuok, mesedez, egon erne!!

